

# Arrasate

1997ko  
apirilak 11  
358. zenb.



**KULTURA: ARANTXA JUARISTI • IKUSPEGIA: BIXENTE AZKARATE**  
**IRITZIA: JESUS MARI VILLAR • 30 GALDERATAN: ARANTXA LEJARRAGA**




*Jose Aranxabal*

**Dena  
5.000  
pta.tan**

Erraza  
da

hemen

*Orain gure txartelarekin  
bilero dena 5.000 pta.tan.*





# Zelako etorkizuna daukagu begien aurrean?

**O**rain egun batzuk Gipuzkoako Proiektio Demografikoak, Euskadiko biztanlegoaren gaineko azterketa baten ondorioak aurkeztu zituen Foru Aldundian.

Zenbakiak kezgarriak dira, 2011. urtean orain baino 22.820 jubilatu gehiago eta 22.004 gazte gutxiago egongo dira eta.

Ondo gogoratzen dut Juanjo Gabiñak bere *Euskadi eta etorkizuna* liburuan zioena: "Lanaren ondorengo bizitza gero eta azkarrago iristen da eta heriotza gero eta beranduago. Era horretan, lanaldia behin betirako bukatu dutenek, batzaz beste 20-30 urteko bizi esperantza dute".

Zahartze prozesuaren aurrean gazteen gutxitzearen ondorioak azaltzen dira. Gutxitze horrek gizarte



Bixente Azkarate

ondorio txarrak dauzka, teknologiaren eta zientziaren eboluzioarekin datozen aldaketei aurre egiteko izpiritu berritzailea eta dinamikoa falta zaiolako. Herrialde batzuk, Frantziak kasu, ekin diote jaiotze tasaren jeitsieraren aurkako borrokari, umeak ekarri nahi dituzten bikoteendako

laguntza eta babes politikak sistematzatuz. Ez dira jarrera xenofoboak, etorkizunean oreka kulturalari eta sozialari eusteko saiakerak baizik.

Gazteak inbertsio eta itxaropen gastu bezala ikusten dira; zaharrak

berriz kontsumo gastu moduan. Gaztedia gutxitzeak hirugarren munduko herrialdeetako inmigratio indartsua sortuko du, horrek dakarren guztiarekin.

Planteatu ahal izango litzateke, joera hipotesi moduan, jaiotze tasa hain

txikiekin jarraituko bagenu, Euskadik bere etorkizuna hipotekatzeko aukera izugarriak izango litzukeela. Gurea bezalako gizarte txiki batek bere nortasuna babestu eta aldi berean indartzeko premia du. Gaur jaiotzen direnak hemendik 15 urteko nerabezeroak izango dira, horregatik, gaur egiten dugunak bihar izango du eragina. Gaztediarik gabeko gizarte batek, edozein erakundek moduan, ez du etorkizunak jartzen dituen erronkei arrakastaz aurre egiteko beharrezkoa den bizitasunik. Inmigrazioaz baliatzea, hurrengo urteetan ez da harrizko gaituen zerbait. Larria zera da: hori gerta daitekeela aurretik Euskadientzat horrek izan ditzakeen benetako ondorio sozialak eta kulturalak kontuan hartu eta aztertu barik. Behar bada gaur ez da posible izango, baina esandakoagatik Euskal Herrian jaiotze politika bati ekitea, seriotasunez eta interesez egin beharreko kontua da, ahalik eta azkarren hobeto gainera. Euskal esaera zahar batek dioen moduan: "Behin ura joanda alperrik presa egitea". ■

**"Jaiotze tasa hain txikiekin jarraituko bagenu, Euskadik bere etorkizuna hipotekatzeko aukera izugarriak izango litzukete"**

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate  
Komunikabideak) Otarola kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65; Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behar-  
do Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubil-  
laga, Maider Egues, Marian Porcel. **Publizitateak:** Alber-  
to Garro, Kaitlin Allende (Tel.: 77 08 15). **Adminis-  
trazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 28). **Diseinua:** Golo  
Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Maria del  
Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azka-  
rate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor  
Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA  
taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E.,  
Karmelo Urbarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga,  
Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose  
Man Astigarraga, Jesus Larraga, Matilde Sainz, Iker  
Barandiaran, Xabier Lelona, Karmele Perez, Kopti, Jon  
Ozaita, Birginia Urkioa, Jabi Luengo, Maite Barneña.  
**Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AEO. (Tel.:  
77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200.  
**Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo  
kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubilla-  
ga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esanetan irazitzen  
erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper  
birziklatuan egiten da.

**Azala:** Golo Arana.

Arrasateko Udaleren  
laguntzaz

Gipuzkoako Foru  
Aldundien laguntzaz

Eusko Jaurlaritzako  
Kultura  
Sailaren laguntzaz

## 358. zenbaki honetan

1997ko apirilaren 11n

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen.....	<b>10/13</b>	Kulturaren txokoa ..	<b>26/27</b>
Irakurlea idazle .....	<b>6</b>	Txutxumutxuak.....	<b>14/15</b>	Azoka plaza .....	<b>28/29</b>
Inkesta.....	<b>7</b>	Asteko gaia .....	<b>17/19</b>	Ikusi eta entzun .....	<b>33</b>
Euren ikuspuntutik .....	<b>8</b>	Kirolak jokoan .....	<b>20/22</b>	Foto zaharra .....	<b>34</b>

*Ikuspegia*  
**Bixente Azkarate.....3**

*Euren ikuspuntutik*  
**Jesus Mari Villar.....8**

*Aurrez aurre*  
**Julian Gorospe.....24/25**

*Hogeita hamar galderatan*  
**Arantxa Lejarraga.....30**

*Asteko gaia*  
**Aerobic-a modako kirola.....17/19**

Geroz eta arrasatear gehiago animatzen da aerobic-a egitera, eta mutilak ere hasi dira praktikatzen.



11

ostirala

■ ZINEA

*Perdona bonita pero Lucas me quiere a mi* Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ DO DIA DE GALIZA

Arratsaldeko 6etan olagarroa, ribeiro ardoak, enpanadak eta Santiago opilen dastaketa. Gauean *Solara* orkestrekin dantzaldia.

■ KONTZERTUA MONTE-RRONEN

Luis Camino perkutsiojo- learen kontzertua arratsaldeko 7etan Monterronen. Sarre- ra dohainik.

12

larunbata

■ ZINEA

*La sombra del diablo* Alai zineman, 7.30etan eta 10etan.

■ DO DIA DA GALIZA

Goizeko 10etan kaleji- ra. 12etan Asunzioneko Gure Amaren elizan meza. 1etan San Andresko plazan *Los Galaicos* taldea. Gauez *Galaktika* orkestrarekin berbena.

■ ZERKAOSTETAKO AUZO- TARRREN BAZKARIA

12.30etan San frantzisko Elizan meza. 2.30etan Herri Gain elkartean bazkaria eta ondoren dantzaldia.

13

igandea

■ ZINEA

*La sombra del diablo* Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Ber- gara, Elgoibar, San Migel, Etxeberria, Barinaga, Itxua gaina, Arrasate, Eibar, Bergara eta Arrate. Guztira 74 kilo- metro. Irteera goizeko 9.30etan Monterrondik.

■ DO DIA DE GALIZA

Goizeko 11etan bermut dantza *Ria de Arosa* orkes- trekin. Arratsaldean jaiaren bukaera.

15

asteartea

■ ZINEA

*La sombra del diablo* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ ARKOREN BATZAR OROKORRA

Arko (Arrasate Komuni- kabideen) Batzar orokorra arratsaldeko 6.30etan Mon- terronen.

■ HITZALDIA

Gaia: Bularreko gaisota- sun arinak eta kaltegarriak. Bularreko minbiziaren diag- nostiko goiztarra. Hizlaria: Jose Joakin Astola medikua, Eskualde Ospitaleko Gine- kologi Zerbitzuko arduradu- na. Arratsaldeko 5etan Bat- zokiko aretoan. EAJko ema- kumeek antolatuta.

■ IKASTAROEN HASIERA

Famili eta Gizarte Hez- ketarako zentroak antolatuta hainbat ikastaroren hasiera. Goizeko 9.30etan eta 6.30etan sukaldaritza ikastaroa enku- adernazio ikastaroa 5etatik 7etara. Tapiz-makramea berriz, 6.30etatik 8.30etara.

■ HITZALDIA

Gaia: fruitu arbolak. Hiz- laria: Jakoba Rekondo. Arra- tsaldeko 4etan Aretxabaleta- ko Loramendi elkartearen lokalean. TRIL emakume tal- deak antolatuta.

LAN ESKAINTZA

ITURBIDE EGOITZARAKO SUKALDARIA

Arrasateko Udalak Iturbide Egoitza- rako **Sukaldari** plaza bat hornitu nahi du behin betiko izaeraz.

Deialdia aginduko duten Oinarriak Udaletxean jaso daitezke.

Instantziak aurkezteko azken eguna apirilaren 22a, asteartea, izango da.



ARRASATEKO UDALA

Personal Sails ■

14

astelehena

■ ZINEA

*La sombra del diablo* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ ENMARKAZIO IKASTAROA

Famili eta Gizarte Hez- ketarako zentroak antolatuta enmarkazio ikastaroa hasiko da arratsaldeko 6etatik 8eta- ra zentroko egoitzan.



# 16

## asteazkena

### ■ KANTU ETA PIANO KONTZERTUA

Kantu eta piano kontzertua Arrasate Musikalek antolatuta arratsaldeko 7.30etan Amaia antzokian.

### ■ BIZIRIK EGUNAREN INGURUKO EKINTZAK

Mahaingurua: Norantza droga-menpekotasunen prebentzioan. Ponentea: Txus Congil. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Askagintzak antolatuta.

# 17

## osteguna

### ■ ZINEA

*Ridicule* Alai zinemaren 7etan eta 9.30etan.

### ■ KONTZERTUA MONTERRONEN

Loiola Garmendia Golden Apple Quartet taldeko kidearen kontzertua arratsaldeko 7etan Monterronen. Sarrera dohainik. Gaztemaniak-ek antolatuta.

### ■ HITZALDIA ERGUIN ESKOLAN

Gaia: Agresibitatea: nola bideratu gure seme alaben agresibitatea?. Hizlaria: Jabier Ibañez Dorronsoro. Gurasoei zuzenduta. Arratsaldeko 6etan Erguin Herri eskolan.

### ■ HITZALDIA

Gaia: emakumeen egoera Txiapasen. Hizlariak: Marta Elena Flores eta Carina Otxoa. Arratsaldeko 7etan Udaletxe-ko pleno aretoan. Antolatzailea Emakume Saila.

### ■ ANTZERKIA GAZTETXEAN

Ohiulari Klow antzerkiaren *Dena Klownrolpean* antzezlanaren Arrasateko Gaztetxean arratsaldeko 7.30etan. Askagintzak antolatuta.

### ■ PINTURA ERAKUSKETA

Arantza Juaristi Kerejetaren pintura erakusketa Harresi aretoan apirilaren 11tik 27ra arte. Orduetgia arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegutetan 12etatik 2ak arte eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.

### ■ FRONTENIS TXAPELKETA

Apirilaren 19tik aurrera frontenis txapelketa Musakolako kiroldegian. Izen ematea apirilaren 15a baino lehen. Prezioa 1.000 pta bazkideentzat eta 1.500 pta. ez direnentzat.

### ■ BIZIRIK EGUNA JAIA

Apirilaren 19an arratsaldeko 4etan Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazoak. 5etan Goloka antzerki taldea. 6.30etan Koiuntura musika taldea. 7.30etan kalejira. 8.30etan bertso-lariak: Jon Sarasua, Maia-


len Lujanbio, Unai Iturriaga eta Igor Elortza. Gaueko 10.30etan kontzertua Ke Rule eta Bat Bitten taldeekin. Aipatutako ekintzak Monterronen. Herriko plazan gaueko 9.30etan Ekekei antzerki taldearen *Fumantxu Gernikako Arbolaren gerizpean* antzezlanaren. Askagintzak antolatuta.

### ■ KORRIKAREN TONBOLA

Korrikaren tonbolan kanping-denda tokatu zaizkenez Arrasateko AEKra joan behar dute saria jasotzera. Nahi izanez gero 77 03 69 telefono zenbakira deitu.

### ■ UDALEKUAK 97

7 urtetik 13 urtera artekoek zuzendutako udalekuak uztailan eta abuztuan. Izenematea apirilaren 10etik 23ra Gazte Bulegoan. Informazio gehiagorako deitu 77 00 65 zenbakira.



### DO DIA DE GALIZA

Ostiraletik domekara arte Arrasateko Galiziarrek Do Dia de Galiza ospatuko dute. Dantzak, musika eta bertako jakiak izango dira protagonista hiru egun horietan.



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 11**

- Gaueko 10ak arte: Español, Iturriotz.
- Gauez: Estella, Bergara.

**Larunbata 12**

- Gaueko 10ak arte: Corcuera, Musakola.
- Gauez: Mozos, Bergara.

**Igandea 13**

- Gaueko 10ak arte: Irizar, Erguin.
- Gauez: Mozos, Bergara.

**Astelehena 14**

- Gaueko 10ak arte: Amezua, Santamaina.
- Gauez: Camacho, Bergara.

**Astearte 15**

- Gaueko 10ak arte: Ruiz, Maala.
- Gauez: Puy, Bergara.

**Asteazkena 16**

- Gauez: Morales, San Andres.

**Osteguna 17**

- Gauez: Azkoaga, Ferrerías.

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**

- Arrasateko Eskualde-Ospit. . . . . 79 53 00
- Igualatorria . . . . . 79 05 00
- Santa Agedako Ospitalea (gizonak) . . . . . 79 39 00
- (emakumeak) . . . . . 79 44 11
- Buru osasunerako zentrua . . . . . 79 90 11

**Gurutze Gorria**

- Bergara . . . . . 76 55 76

**DYA**

- Antzuola . . . . . 78 71 57

**Anbulatorioak**

- Arrasate (Larrialdiak) . . . . . 79 13 57
- Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . . . 77 03 46
- Espezialitateak . . . . . 77 05 78
- . . . . . 77 12 64
- Oñati . . . . . 78 08 52
- Eskoriatza . . . . . 79 98 58
- Arebakaleta . . . . . 79 74 58
- Aramaio . . . . . (945) 45 51 16

**Anbulantziak**

- Gipuzkoako ambulanziazkiak . . . . . 45 87 44

**Udaltzaingoa**

- Oñati . . . . . 78 04 11
- Bergara . . . . . 76 14 69
- Arrasate . . . . . 79 14 39
- Arebakaleta . . . . . 79 10 52
- Eskoriatza . . . . . 088

**Ertzaintza**

- Arrasate . . . . . 79 71 99

**Suhiltzaileak**

- Udal taldea . . . . . 79 09 00
- Udal taldeko suhiltzaile burua . . . . . 79 20 72
- Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . . 088

**Matxurak**

- Urak (udal zerbitzua) . . . . . 79 09 00
- Elektrizitatea (Iberduero) . . . . . 12 01 62
- Gasa . . . . . 900 40 05 23
- . . . . . 79 78 44
- . . . . . 79 76 78

**Garraioak**

- Taxiak . . . . . 79 12 22
- PESA . . . . . 79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**

- Iturbide Egoitza . . . . . 79 72 11
- Abaroa jubilatuen egoitza . . . . . 79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**

- KIUB-OMIC . . . . . 79 51 55

**Monterrongo liburutegia**

- Monterron . . . . . 77 01 05

**Irratia**

- Arrasate Irratia . . . . . 79 58 77

**ETORRI BERTSO JAIALDIRA**

A diskideok, agur: Urtarri-lean material informatiko guztia, argazki kamarak eta beste hainbat materiale lapurtu ziguten Urretxuko Otamotz herri aldizkariko egoitzatik.

Lapurreta kolpe gogorra izan da aldizkari taldearentzat eta orain berriro zerotik hasi beharrean gaude.

Otamotz aldizkaria lehenbailehen martxan jartzeko behar den material informatikoa erosi ahal izateko laguntza bonoak jarri ditugu salgai Urretxu eta Zumarragan. Honetaz gain, apirilaren 12rako bertso jaialdia antolatu dugu Zumarragako Beloki pilotalekuan, Amuriza, Iturriaga, Euskitze eta Sarasua bertsolariekin.

Jaialdian ahalik eta bertsozale gehien elkartzeko inguruetako herrietara ekin-tza honen berri zabaltzea bururatu zaigu. Beraz, benetan eskertuko dizuegu apirilaren 12rako bertso jaialdira agertzea, dotorea izango da eta.

Aldez aurretik, eskainitako laguntzagatik eskerrak emanez, gure laguntzaren beharra duzen arte agurtzen gara. Bitartean, ondo izan.

*Otamotz aldizkariko lagunak*

**Gutunen araudia**

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimo, gaitzenez edo inimiziaz datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.
- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da.

**Kazetari berria ARKOn**

Lankide berria dugu Arrasate Pressen eta Arrasate Telebistan. Beno, egia esan, berri berria ez da, azken hiru urteotan asteburuetako ARKOren eginbeharrak bete ditu eta. Argazkian ikusten denez, Marian Porcel-i buruz hitzeginen ari gara.

Aste honetan bertan hasi zaigu egun erdiko lanean, bai telebistan eta baita aldizkarian ere, eta espero dezagun hemen luzerako egotea.

Aspalditik bertan zegoen arren, Ongi etorri lanaren alde berri honetara Marian!



**beatriz**  
oinetakoak eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
ARRASATE

**UGARAN**  
jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**Memesa**  
79 42 22



# Gustatzen zaizu txirrindularitza?



**Tomas Fernández**  
Jubilatua  
(66 urte)

Bai, asko. Euskadiko itzulia irratiz jarraitzen dut. Hala ere, oso zaila da jakitea nork irabaziko duen, akaso, talde-etako zuzendariek jakingo dute.




**Karmen Galdos**  
Etxekoandrea  
(63 urte)

Lasterketetan agertzen diren paisaiak gustatzen zaizkit. Denbora izanez gero Arrasateko lasterketa ikustera irten-go naiz. Olanok irabaziko duela uste dut.



**Sebastian Pacho**  
Jubilatua  
(68 urte)

Bai gustatzen zait, baina ez dut Euskadiko Itzulia jarraitu. Kanpoan egon naiz orain arte eta ez nekien Arrasaten bukatzen denik. Denbora badut irten-go naiz ikustera.



**Esteban Otaduy**  
Langilea  
(39 urte)

Jarraitzen dut Euskadiko Itzulia baina ostiralean goizetik bakarrik ikus dezaket arratsaldean lana egin behar dut eta. Oncekoek dute irabazteko aukera, hala ere, niri hemengo batek irabaztea gustatuko litzaidake.



**Josu Ayastuy**  
Ikaslea  
(25 urte)

Euskadiko Itzulia ezin dut telebistaz jarraitu baina egunero irakurtzen ditut egunkariak. Gustatuko litzaidake hemengo batek irabaztea, baina Zulle edo Jalabertek aukera gehiago dute.



**Jose Manuel Martin**  
Ikaslea  
(23 urte)

Ikustea baino gehiago, txirrindularitza praktikatzea gustatzen zait. Ez dut Euskadiko Itzulia jarraitu baina ostiral arratsaldean lasterketa ikustera joango gara klase ostean.



**Urko Bedia**  
Ikaslea  
(19 urte)

Ez zait larregi gustatzen. Euskadiko Itzuliari buruz ez dakit ezer, hemen bukatzen zenik ere ez. Ez dut ikustera joateko asmorik.



**Lierni Axpe**  
Langilea  
(26 urte)

Ez dut asko ulertzen baina gustatzen zait. Politia izaten da ihesaldiak egoten direnean. Ostiralean afaria egin behar dugu lagunok itzuliaren bukaera dela eta. Herrian giro ona egotea espero dugu.

**REPLAY**  
MADE IN ITALY

**MAZA**  
B O Y S

ERDIKO KALE, 42 • TEL.: 79 14 53 • ARRASATE

**SOVIET**  
URBANTRIBE  
**Levi's**  
**GUESS**



**USTEAK USTE**


*Gizonezkoak emakume balira...*

**E**z dakit zutabe hau den tokirik aproposena, baina normalean niretako berririk aipagarrienak direnak ekartzen saiatzen naiz astero. Nire lehen semea jaio zen eguen santuan, Aritz, eta duda barik horixe da gehien eragin didan berria.

Estimu handian izan ditut betidanik emakumezkoak. Semetxoaren erditzea ikusi eta gero, areagotu egin da emakumeenganako sentitzen dudana miresmena; gehiago, jakina, emaztearenganako dudana. Umeak mundura ekartzeko sufrimendua eta ausardia behar bezala azaltzeko ez dut hitz bakar bat ere. Erditze aurreko orduetan eta erditzean bertan gizonezkook aldamenean egon egoten gara, animatu ere animatzen dugu (alperrik asko!), baina egin beharrekoa eurek egin dute. Lan hori gizonezkooi balegokigu... zalantzak ditut mundua ez ote zen hutsik geratuko.

Esandako guztiagatik emakumezko guztiei eskerrik sentikorrenak babero beharrean dagoen aita berri honen partez; besarkadatxoak eta musutxoak, berriz, Aritzen amarentzat.

Beñardo Kortabarria



# Chernobyl hamaika urte beranduago

Jesus Mari Villar

**1**986ko apirilaren 26ko goizaldeko lehen orduetan, eztanda handi eta izugarri batek esnatarazi zituen Pritiat hiriko biztanle denak, Ukrainian dagoen Chernobylgo zentral nuklearraren ondo ondoan bizi zirenak.

Historia zibilaren energia nuklear hondamendirik ikaragarriena gertatu zen aurrez aipatutako unean. Era horretan atmosferara zabaldu ziren erradiazioak milaka lagunengana iritsi ziren, milaka lagunek jasan behar izan zituzten.

Hamaika urte beranduago hondamendiaren ondorioen lekuko izateko aukera izan dut, Chernobyl jaioan eta han gertatutakoaren arrasto latza ikusteko. Hon-

damendi nuklearraren ondorioz, hamaika urte beranduago milaka dira tiroide minbizi kasuak, milaka dira malformazio kasuak.

Chernobylgo ezbeharrak ala istripuak, betirako markatu du aire zikin eta kutsatu hura arnastu zuten lagun guztien bizitza. Istripuaren eragina jasan dutenek, sufrimendua daramate aurpegian,

euren aurpegiak dira sufrimenduaren islada. Aurpegi tristeak ikusten dira Chernobyl inguru hartan, begirada malenkoniatsuak egunez egun bizi izaten ahalegintzen den jendearen baitan. Eta hori guztia, zoritxarrez, etorkizunik ez duen herrialde batean bizi izaten behar, langabezi tasa oso handia den herrialde batean, ustelkeria eta bortxakeria erradiazio nuklearraren bidailagun nagusi diren herrialde batean.

Hamaika urte beranduago, Chernobylen heredentzia dira eguneroko sufrimendua, izua eta gosea.

Jesus Mari Villar, Chernobyl elkarteko partaidea da.

**“  
Istripuaren eragina jasan dutenek, sufrimendua daramate aurpegian  
”**

MARIANO ANDRADE SIGANO

**TAXIA**

24 orduko zerbitzua  
Hotelak / Aireportua / Ospitaleak...

Tel.: 79 96 87 • Tfno mobilak: (907) 75 23 85  
Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

**TXOKO  
TABERNA**

Eure berezitasunak pintxo eta mckau gozoak



astea bi hitzetan

■ Erasoek txikizioak eragin

Buru estalita zeramaten 35 bat laguneko talde batek hainbat eraso egin zuen zapatu gauean. Ordu bateko tartean molotov kokte- lekin eraso zituzten bake epaitegia, Garibai etorbide- ko aseguru etxe bat eta aldi baterako lan enpresa bat, hainbat kutxazain eta tele- fono kabina bat. Kalte gehien bake epaitegiak jasan zituen, lehen pisua kiskalita eta material informatikoa hon- datuta geratu ziren eta. Urtarriaren 11n ere bake epai- tegia erasotu zuten, bake epaitegia konpondu berria zen eta Udalak oraintxe jarri behar zituen ate blindatuak segurtasun modura. Bestal- de, komunikabide batzuk INEM ere erasotua izan zela kaleratu zuten baina, enple-

gu erakundeak gezurtatu egin zuen berri hori. Josu Zabalaren heriotza salatze- ko egin zituzten sabotajeak.

Ertzainek kalera irten zuten hainbat bider karga- tuz.

■ Gobernu taldearen iritzia

Astebukaeran jazotako txi- kizioen inguruan hitzegin zen asteleheneko gobernu batzordean. HBko kideen iritiz, zapatuko gertaerak konstestu batean sartu behar dira, eta egoera honetatik ate- ratzeko elkarrizketa eta negoziaketaren bideari hel- tzea beharrezkoa da.

■ Ospitale psikiatrikoa inauguratu

Asteazkenean goizean inau- guratu zuten San Juan de Dios ospitale psikiatrikoa.

Agintari ugari hurbildu zen Gesalibarrera psikiatriko berria gertutik ezagutu, eta inaugurazio ekitaldian parte hartzera.

Agintariei dagokienez Jose Antonio Ardanza, lehenda- karia, Roman Sudupe dipu- tatu nagusia, Iñaki Azkuna osasun sailburua eta Arra- sateko alkatea izan ziren besteak beste. Horrez gain, ospitaleko arduradunak eta udaletxe ordezkarik batzuk ere hurbildu ziren. Ospita- le berria inauguratzearekin, berriz, Jose Maria Setien gotzaiak arduratu zen. Ardan- za lehendakaria pozik azal- du zen, "hogeitabat garren mendeko psikiatrikoaren inaugurazioan parte hartze- agatik". Arrasateko alkate- ak, berriz, gaisoen ardura gizartearena ere badela esan zuen.

“ Ez dut egunkariak irakurtzeko ohitura handi- rik... baina horretan pasa nuen egun euritsu bat (...). Benetako bitxia relax saila... perla batzuk.

(...) Baina bada guzti- tan ardura sortzen duen zerbait. Iragarkia jartzen dutenek, inolako muga barik, denetarik eskaintzen diote bezeroari. BAI EDOZERRI, ohiko eran, babes barik. Eta HIESa ez da bakarrik besteei gerta- tzen zaien infekzio bat, denondako arriskua da. Eta gaisotasuna ez da txantxe- tan hartzekoa. Gaur egun, epe ertainera ezarritako heriotz zigor bat modukoa da. Birusak mehatxu gogorra dira gizartearentz- ta, eta dauden milaka artean, batzuk hiltzaileak dira. HIESaren birusa horietako bat da, hiltzaile- netariko bat.

Jendeak uste du arris- kua bakarrik arrisku talde bezala ezagutzen direnen- tzat dela: homosesualak, drogazaleak, etab. Ezta gutxiagorik ere! Askoz ere zuzenagoa da arrisku ohituz hitzegitea.

Horregatik egunetik egunera goraka doa kutsatze heterosexuala eta gaur egun HIES kasuen %15ekoa da. Egin itzazu barre batzuk iragarki horiekin, baina ez zaituz hortik pasa”.

EUKENI OLABARRIETA

TU-Lankide  
1997ko martxoa



OBRAK HASI OLARTE 14AN

Egoera kaskarrean Ezeagoela eta, Olarteko 14garren etxebizitza botatzen hasi dira berria egiteko. Etxebizitzak bi solairu edukiko ditu, eta bakoitzean bi etxebizitza. Behean dendak jartzeko gunea utziko da. Zubitxu eraikuntza enpresak egingo ditu obrak.

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**  
Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 79 13 78

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta  
Serrano Doktorea**

HAURDUNALDIA AMNIOZENTESIA ANTISORKUNTZA	MENOPAUSIA BASEKTOMIA BULAR PATOLOGIA
--	---

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**  
Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

**ITSASKI  
ARRANDEGIA**

**Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak**

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tel.: 79 98 94





Herri Batasunako sei zinegotziak izango dira batzorde guztietako buru.

## Herri Batasunak bete ditu Ezker Batuak utzitako karguak

Ezker Batuak gobernutik irteera erabaki ondoren, HBko zinegotziek bere gain hartu dituzte EBak utzitako karguak.

Gizarte eta Ongizate Batzordea zuzendu izan du orain arte EBk Joseba Ugalde batzordeburu izanik, baina aurrerantzean Isabel Zuazubiskar izango da batzorde horretako buru. Bestalde, astelehenero

egiten den gobernu batzordeko kide izendatu dituzte Isabel Zuazubiskar eta Juan Jose Sanz ere. Era horretan, HBko bost zinegotzi dira gobernu batzordeko partaide baina bilera hori egiteko nahikoa da hiru kide batzea. Horrez gain, Ugalde hirugarren alkate orde zenez, Juan Jose Sanzek beteko du kargu hori. Izendatzea falta den kargua Itur-

bide egoitzako juntako lehen-dakariarena da, eta seguruen Ino Galparsorok hartu du ardura hori.

HBren ustez, EBk gobernua utzi du baina ez bi alderdien artean kontraesanak egon direlako, eta positibotzat jo du alderdi horrekin egindako lana. Gainera, Arrasateren alde etengabeko lanean jarraitzearen alde azaldu da HB.

## EAKo Urizarrek zinegotzi kargua utzi

Lanpetuta dabilela eta, EAKo Pello Urizarrek zinegotzi kargua uztea erabaki du.

Horren ordez, Jabier Nafarrate izango da EAKo zinegotzi berria. Nafarratek 48



urte ditu eta Aramaion jaioa bada ere aspalditik Arrasaten bizi da. Maisu industrialia da Nafarrate, eta Fagorren egiten du lan berogailuen plantan. Horrez gain, ekonomika ikasketak egiten ari da UNEDen. Udal hauteskundeetarako EAK aurkeztu zuen zerrendan laugarrena zen.

Urizarrek kargua lehenbailehen uzteko asmoa azaldu duenez, hile honetakoa izango da bere azken plenoa eta jarraian Nafarratek hartuko du testigua. Euskara eta gazteria, kultura eta hezkuntza batzordeetan parte hartu izan du Urizarrek, eta baita AUKEAren juntan. Nafarrate zein batzodertara joango den, berriz, zehaztu barik dago oraindik.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55



# Araudi berria onartuta, lehenengo Bedoñako baserri bideak konponduko dira aurten

Bedoña auzoko Etxebarri, Artia, Zabale, Andramarizuri, Urkimendi, Elorrixa eta Otamendi baserrietara, eta Uribarri auzoko Ibarreta baserriera doazen bideak konponduko dira aurten. Jakinaenez, baserri-bideak konpontzeko araudi berria onartu zen orain gutxi Udaletxean, eta aipatutakoak dira araudi berri horretan aurten garatuko diren proiektuak. Lehen araudia orain hiru urte onartu zen, baina gero errekurtsoa ezarri zitzaionez ez da aurrerapausurik eman baserri-bideen arazoan, araudi berria onartu den arte. Aipatutako araudiaren arabera, baserri bideak konpontzeko hiru aukera edo modu daude: auzolana, kontrata bidez hormigoia, eta kontrata bidez aglomeratua.

Auzolanean egiten diren bideetan Udalak bere gain hartzen du lurra mugitu, eskolillerak egin, eta zoroa sendotzeko lanen kostu osoa; saneamendua, berriz, %80a Uda-



Aspalditik zain egon ondoren, laster hasiko dira konpontze lanak zenbait baserri-bidetan.

lak ordaintzen du eta erabiltzaileak %20a. Era berean, hormigoia jartzeko lanak eta horrekin batera doazenak, egin bidearen erabiltzaileek egin beharko dituzte, nahiz eta Udalak arduradun bat jarri.

Bideak kontrata modalitatean egiten direnean, eta hormigoia denean, lan osoaren kostuaren %20a erabiltzaileek egin behar dute, eskolillerena izan ezik; gainontzeko %80a Udalak ordaintzen

du. Azkenik, kontrata modalitatean hormigoia beharrean aglomeratua sartuko den bideetan, erabiltzaileek ordaindu beharko dutena obra osoaren %10a da.

Ondoko koadroan ikus daitekeenez, auzolan zein kontrata eran egingo zaie hasieran aipatutako baserrietarako bideen obrei. Lehen multzotan agertzen diren baserrietarako bideetan (auzolanean eta kontratan egingo direnetan) hormigoia sartuko da; bigarrenean, berriz, aglomeratua. Esan beharra dago, baserri-bideetarako guztira 40 milioiko aurrekontua duela Udalak aurten. Kopuruak ikusita, hiru milioi inguru geratuko liriteke gastatzeko, eta behar bada horregatik oraindik onartu daiteke beste proiekturen bat, eskaerak asko izan dira eta. Aurten egiten ez diren bideak ondorengo urteetako aurrekontuetan sartuko dira.

## Baserri-bideak konpontzeko onartutako proiektuak

### Auzolan eran egingo diren bideak

Bideak	Auzolan	Kontrata	Saneamendua	Auzoak	Udalak
			Saneamenduen %20a		
Etxebarri etab.	4.944.436	5.106.576	2.018.077	403.615,4	9.764.397
Arteaga baserria	4.165.248	9.989.963	2.236.423	447.284,6	13.707.926
<b>Guztira</b>	<b>9.109.684</b>	<b>15.096.539</b>	<b>4.254.500</b>	<b>850.900</b>	<b>23.355.323</b>

### Kontrata eran egingo diren bideak

Bideak	Auzolan	Kontrata	Eskoilerak	Auzoak	Udalak
				Aurrekontuaren %10a	
Otamendi baserria		968.629		96.862,9	871.766
Elorriaga baserria		2.132.950		213.295	1.919.655
Urkimendi baserria		11.357.338	3.590.606	776.673,2	10.580.665
<b>Guztira</b>		<b>14.458.917</b>		<b>1.086.831,1</b>	<b>13.372.086</b>




Arrasateko anbulategian 349 lagunek eman zuten odola martxoan

## Odol emaleen kopurua gorantz urtez urte

Arrasateko Anbulategian sei hilabetero egiten dira odol ateraldiak, eta azkena martxoan zehar egin zen.

Martxoko datuek erakusten duten moduan, gero eta jende gehiago animatzen da odola ematera. Martxoan, esaterako, 349 lagunek eman zuten odola (iaz 327k), eta horietatik 49 berriak izan dira. Guztira, hala ere, 374 lagun hurbildu ziren anbulategira, baina arrazoi bategatik edo bestearengatik batzuek ezin izan zuten odola eman.

Odol kopuruari dagokionez, gizona 450 zentimetro kubiko odol ateratzen zaie, eta 400 emakumei. Behin ateraldia eginda, odola Gasteiz-



Arrasaten bildutako odola Gasteizeko odol bankura bidaltzen da.

ko Santiago ospitalera eramaten da, bertan dago eta Ara-

bako odol banku nagusia. Odol banku horrek iaz ateratako datuei begiratuz gero, odola ematen duten gehienak gizonetzkoak dira: %62 eta emakumezkoak %37. Adinari erreparaturaz, gehienak 31 eta 50 urte bitartekoak direla jakin daiteke, eta odol motari dagokionez O+ eta A+ motakoak lortzen dira gehien.

Anbulategiko odol ateraldia bukatu berri bada ere, apirilean zehar Ikerlango, Euskadiko Kutxako, Alekoop-eko eta Fagor Garagartzako langileek izango dute odola emateko aukera. Kooperatiba horietan bildutako odola ere Gasteizko bankura bidaliko da.

# DEMOS

## MUSIKA SAIOAK

**gm!**  
gaztemaniak!

Apirilak 11, ostirala: **LUIS CAMINO** perkutsiojolea.

Apirilak 17, osteguna: **LOYOLA GARMENDIA** Golden Apple Quartet.

Apirilak 25, ostirala: **PABLO MORENO** gitarrajolea.

**MONTERRON hitzaldi aretoan**  
**arratsaldeko 7etan**  
**SARRERA DOAN**



Gipuzkoako  
Foru Aldundia




ARRASATEKO UDALA  
Gazte Saila ■





TENTAZIO EGUNAK CITROËNen



## TENTAZIOTIK IHES EGITEKO MODURIK ONENA BERTAN ERORTZEA DA.

**E**ta orain arrazoi ugari dago tentazioan eror zaitezten. Izan ere, Citroën autoek, gehienak aukeratutakoak beren motore ahaltu eta sendoegatik, bere goi mailako ekipamenduagatik,



**CITROËN ZX**  
**450.000** pta.ko aurrekia  
**1.435.000** pta.tik aurrera

beren segurtasun neurriengatik eta berrikuntza teknikoengatik, orain aurrezki eta prezio aparta dute, eta gainera, **finantzaketa sistema tentagarria.**

**Apirilaren 28a arte.**



**CITROËN SAXO**  
**1.183.000** pta.tik aurrera



**CITROËN XANTIA**  
**2.226.000** pta.tik aurrera

**Chapime Tailerrak**

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 06 57 / 79 45 22 • Faxa: 77 10 47




**CITROËN**

EZIN DUZU IMAJINATU CITROËNek ZUGATIK EGIN DEZAKEENA



Gutxien espero zuten pertsonaiarekin egin zuten topo Txalaparta elkarteak Segovian. Otsailaren bukarran asteburu bat pasatzera joan ziren Hoces del Rio Duratón-era eta hara non, Mario Vargas Llosa idazlea zegoen han bere familiaarekin. Jakina, horren sorpresa bitxiak argazki bat merezi zuen!



**TXALAPARTAKOAK MARIO VARGAS LLOSA-REKIN**

## INSTITUTOKOAK HOLANDAN IKAS-BIDAIA

Institutoko 2. mailako ikasle batzuk Holandara joan ziren Aste Santuko oporretan. Amsterdam eta inguruak ezagutzeko aukera izan zuten eta izugarri gustatu ei zitzairen. Honez gero, etxean daude baina... non izango dute burua?



## IKASTAROAREN OSTEAN AFARIA

Sukaldaritza ikastaroan parte hartu berri dute Garagartzako eta Gesalibarko emakumeek. Ikastaroa orain dela gutxi bukatu da, eta amaiera moduan afaria egin zuten. Afaria, jakina, guztien artean prestatu zuten baina Maider Larrañaga irakaslearen gidaritzapean.



ITURGINTZA, GASA ETA BEROGAILUAK


**Zure etxerako aukera berria!**

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik.**

Nafarroa, 8 - 2.A • ARETXABALETA • Tel.: 79 64 91 / Tel. mugikorra: 929 47 72 70

Urte askoko esperientzia merkatuan





Aita izan berri da Beñardo Kortabarría, Arrasate Press-eko zuzendaria eta telebistako eguraldi gizona.

Aritz ostegun santuan jaio zen, eta **BEÑARDO AITA!** beharbada horregatik, da hain formal. Esaten dutenez, gainera, Aritzek aitaren antz izugarria du baina oraindik ezin esan aitzak bezala eguraldia asmatzea gustoko izango duenik.

## IZENA

### Nora Isasi

izango da *Egin* egunkariaren korrespondentsala Arrasaten.

Norak 21 urte ditu, arrasatearra da eta kazetaritza ikasten ari da EHU.

Marian Porcel ordezkatu du.



## DATA

### 1965-4-11

Juan Bautista Azkarate *Mondragones* pilotari handia hil zen. 1891ko ekainaren 24ean jaio zen Juan Bautista Azkarate. Pilota kantxetako jaun handia izan zen bere sasoiari, indar eta gaitasun ikaragarrikoa. 1917an *Zapateritori* irabazi zionetik 1927ra arte, txapeldun izan zen. Azken urte horretan, Atano III.ak kenduko zion frontoietako nagusitasuna. Dena den, 1942. urtera arte pilotan jokatzeko jarraitu zuen.

Beste askok bezala *Mondragones* mutikotan hasi zen pilotan. Donostian soldaduzkan zegoela jokatu zuen profesional mailako bere lehen partidua, berehala nabarmendu zen eta Eibarko Astelena frontoian eskuratu zuen lehen aldiz estatuko txapelketa. Pilotara iraultza ekarri zuen Juan Bautista Azkaratek, bere jokera bortitzak ordura arteko marka guztiak apurtu zituelako. Kantxa askotan neurriak aldatu behar izan zituzten.

## LANEAN ALA DESKANTSUAN?

Mauleko Eperra ikastola berritzen ari direla eta, bost arrasatear eta bi atxabaltar esku bat botatzera joan ziren Aste Santuan. Lan egin behar izan arren, Pello Gomezek eta Jabi Rodriguezek hartu zuten deskantsurik. Hori bai, batzuk tunbonan etzanda egongo ziren moduan, hauek karretila gainean moldatu behar!







# Arrasateko OSASUN GIDA

## **DENTISTAK**

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ..... ☎ 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎ 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎ 79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ..... ☎ 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎ 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ..... ☎ 77 12 63

## **DERMATOLOGIA**

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1..... ☎ 79 72 16

## **FISIOTERAPEUTAK**

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .. ☎ 77 03 96

## **LOGOPEDIA**

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk..... ☎ 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎ 79 48 77

## **MASAIARIAK**

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎ 77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai)..... ☎ 77 01 33

## **MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK**

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 79 44 22

## **OPTIKA**

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ..... ☎ 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 79 29 95

## **PSIKOLOGOAK**

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎ 79 48 77

## **PODOLOGOAK**

- BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 ..... ☎ 79 50 75

## **OTORRINOLARINGOLOGIA**

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea..... ☎ 79 20 18

## **REUMATOLOGIA**

- GOROSARRI-TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ..... ☎ 77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ..... ☎ 79 72 16

## **UROLOGIA**

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 79 44 22





Erritmo biziko musika, mailota, zapatilak eta izerdia botatzeko gogoia baino ez da behar aerobic-erako.

# Aerobic-a modan

Zer du aerobic-ak horrenbeste jende erakartzeko? Galdera airean dago eta bakoitzak erantzun desberdina eman diezaioke, baina argi dago gero eta jende gehiagok praktikatzeko duela. Sobran dauden kiloak kentzeko aproposa da, moteldutako giharrak indartu eta tonifikatzeko balio du, gorputzaren koordinazioa eta erritmoa lantzeko primerakoa da eta aldeko puntuen aldekoena, oso dibertigarria izatea. Ikusten denez, aerobic-ak alde on asko du, txarrak berriz, gutxi edo bat ere ez.

**B**egi bistan dago. Azken urteetan izugarri hazi da kirol moduan onartuta egon ez arren, kirol gisa interpretatzen den modalitate honetan dabilen jende multzoa. Arrasaten ere asko dira berau praktikatzeko dutenak. Musika ote? Izerdi patxetan egoteak kontzientzian sortzen duen gustoa ote? Gorputz liraina lortzeko gogoia?

## MARINEEK SORTU


Aerobic-aren jatorria aurkitzeko hamarkada batzuk atze-

ra egin behar da, 1970. urtera arte. Estatu Batuetako marineen entrenatzaile baten ideia izan ei zen. Entrenatzen zituen gazteei musika jarri eta ariketekin batera euren egoera fisikoa hobetzea zuen helburu entrenatzaile hark. Konturatu barik, gailo eta diziplina zorrotzen artean sortutako modalitate hura modan jarri zen eta bertatik atera zitezkeen etekinetan erreparatu, Jane Fonda emakume ezagunak hartu zuen aerobicaren lekuakoa. Bera eta bere atzean zebyilen taldea hasi ziren aerobica promoviatzen. 70. hamar-


kadan mailot eta galtzekin jantzitako Jane Fondaren irudia bideo zinta askoren azaletan agertu zen, gorputz liraina eta fina erakutsiz. Ideia ez zen txarra, baina bideoan erakusten ziren aerobic ariketak ez zeuden batere landuta. Garai hartan bideo zinta haiek erosi zituztenetako askok bizkarrak edo lepoa minduta izango du gaur. Horregatik, hasierako arrakasta handi hura ospe txarrean bihurtu zen denbora gutxira.

Parentesi bat gertatu zen orduan. Denbora gutxira ordea, Jane Fonda eta bere taldea





Soberako grasak erretzeko kirol aproposa da aerobic-a.



Adin desberdineko jendea animatzen da aerobic-a egitera. Dibertigarria izateaz gain...

baino azkarragoak izan ziren mediku eta espezialista batzuk aerobic ariketak aztertu, landu eta hobetzeari ekin zioten. Lan fin eta bikain hari esker, aerobic-ak bere izen ona berreskuratu zuen berriro. Gaurko aerobic-ak beraz, ez du zerikusirik, adibidez, Eva Nasarrek garai batean telebistan egiten zuenarekin.

### KIROL OSATUA

Gaur egun esan daiteke aerobic-a adin eta ezaugarri guztietako jendearendako aproposa dela. Baina ez dira gauzak nahastu behar. Aerobic-a ez da bakarrik gimnasia edo kiroldegira joan, musika topera jarri eta ordubate jarraian ariketa azkarrak egiten egoitea. Modalitate oso desberdina daude eta horregatik esaten da jende guztiarendako dela aproposa. Modalitateen

artean haurdun dauden emakumeendako, hirugarren adinako eta gutxitu fisiokoendako klaseak daude adibidez. Ez da hori ordea Arrasaten bizi dugun errealitatea, hemen ez dago eta jende multzo berezi handiegirik modalitate berezi horiek eman ahal izateko. Hala ere, aerobic-a eskeintzen duten tokietan, zailtasun desberdineko klaseak egoten dira, horrela norberak bere maila aurkitu ahal

izan dezan.


Ion Aranbarri dantzariak eta aerobic irakasleak esaten duenez, oso kirol osatua da eta ez du erreparorik jende guztiari gomendatzeko: "Nik guztiari gomendatzen diet. Lan kardiobaskularra egiteko modu dibertigarri bat da eta klaseak profesionalen ardurapean daudenez, ez dago lesioen beldurrik. Bizikletan ibiltzea ondo dago, baita korrika egitera joatea ere, baina

euria egiten duenean ezin zara kanpora irten, eta orduan zer? Aerobic-ean berriz, klasera sartu, musika jarri, izerdia bota eta primeran pasatzen dugu. Gainera, teknika hartu eta gero oso polita da talde osoa ariketetan batera doala ikustea".

Baina ezin izkutatu daiteke jende askok aerobic-a egiteko ohituraren atzean bilatzen duen helburua: gorputza liraintzea. Dударik gabe, aero-

**70. hamarkadan EEBBetako Marineen entrenatzailek  
Aerobic-a. Musikarekin egiten zituzten ariketa fisikoak  
hartu zion lekukoa eta bideo zinten bitartez jarri zuten**





putza eta giharrak tonifikatzeko balio du.

bic-ak asko laguntzen du horretan baina gehiegizko kiloak gainetik kentzeko, aerobic-a egitea ez da nahikoa. Ionek esaten duenez "aerobic monitorea gorpuz fina eta gihartsua izaten dugu baina ez dezala jendeak pentsa bakarrik aerobic eginez lortu dugunik. Gure gorpuzten atzean dieta zorrotzak eta gimnasio-etako makinetan sartutako orduak daude. Gainera profesionalak gara eta gure lana

kirola egitea da, beraz, normala da gauden moduan egoitea. Gorpuz liraina lortzeko asmotan aerobica egiten hasten denak argi izan behar du aerobic-a bakarrik ez dela nahikoa".

Ion ados dago orrialde hauetan baieztatzen denarekin, aerobic-a egiten duen gero eta jende gehiago dagoela alegia. Aerobiton (aerobic-a egiten dutenen kontzentrazioa) desberdinetan parte hartu du eta urte batzuek hona partaiden kopurua izugarri handitu dela ikusi du: "Orain urte batzuk Euskal Herriko aerobitoneran joan nintzenean 200 partaide zeuden, iaz 1.000".


### ESTILO UGARI

Arrasaten *Alto-Bajo Impacto* deritzon aerobic estiloa ematen da batez ere, baina horrez gain badaude beste asko: *Cardio-Funk*, *Bajo Impacto*, *Alto Impacto*, *Step*, *Salsaerobic*, *Afroaerobic*... Izen horien atzean dantza estiloak eta zailtasun mailak izkutatzen dira.

Sara eta Amaia herrian aerobic-a praktikatzeko duten bi emakume dira. Sarak 38 urte ditu eta aerobic-ak asko engantxatzen duela esaten du. Erritmoa eta musika gustatzen zitzaiolako hasi zen praktikatzeko. Egunero ordubete egiten du eta bere ardura ez da gorpuzta liraintzea, forman egotea baizik. Hiru urte daromatza kirol honetan.

Amaiak berriz atzo hartu zuen bere lehen klasea eta nahiko galduta dabil oraindik. Agujetak ditu baina ez ez dio axola. Denbora libre asko zuelako eta dantzan egitea gustatzen zaiolako animatu da aerobic-ean hastera: "Yogan hastea pentsatuta nuen baina oso estatikoa da eta niri mugimendua gustatzen zait". Azkenik dio: "Uste dut engantxatu egingo naizela". ■

**Maria Agirre**



## Mutil "aerobic-oak"

Batek baino gehiagok pentsatuko du aerobic-a nesken gauza dela. Oker dabil horrela pentsatzen duena, gero eta mutil gehiago animatzen da eta praka motzak jantzi eta aerobic-a egiten hastera. Hala ere, oraindik nesken kopurua mutilena baino askoz handiagoa da, are handiagoa Arrasate moduko herrietan.

Ion Aranbarri aerobic irakasle titulodunak esaten duenez, bera da Arrasate eta inguruan dabilzan irakasleen artean gizonezko bakarra eta gainera, hirietara joanez gero gizonezko irakasle bat aurkitzea ez dela erraza ere esaten du. Errealitate horren jatorria betiko mitoan dago Ionon ustez: "Mito bat dago: orokorrean uste da emakumeek koordinazio eta erritmo hobea dutela eta beraz, dantza kontuetan mutilak torpeak direla. Gezur galanta da hori, neska zein mutil torpeak eta trebeak daude eta, diferentzia barik. Gainera mutilok erresistentzia aerobico hobea daukagu eta primeran moldatzen gara aerobic-ean".

Topikoak alde batera utzi eta nesken artean aerobic-a egitera animatu den mutilik bada Arrasaten. Horietaiko bi Angel eta Iker dira. 19 eta 20 urte dituzte. Angel orain dela hiru hilabete hasi zen eta gimnasioko emakumeek animatu zuten: "Hasieran lotsa ematen zidan, klasean mutil bakarra naiz eta. Dena dela karatea egiten dudanez eta aerobic-a grasa erretzeko eta fondoa hartzeko aproposa denez, izena eman nuen. Oso gustorabil". Beste mutilak, Ikerrek, *engantxatuta* dagoela esaten du. Orain dela bi urte hasi zen eta astean hiru ordu ematen ditu aerobic klaseak. Aerobitonetan parte hartzeko gogoia duela esaten du, baina ez ei du denborarik. Kirol hori praktikatzeko dutela diotenean, jende asko harritu egiten dela esaten dute bi mutilek, baina ez zaie inportatzen: aerobic-arekiko zaletasunak betiko topikoak baino pisu gehiago du bi mutil hauentzat.

batek sortu ei zuen

ak. Jane Fondak

modan kirol hau.



## Sorpresarik bai?

Bigarren faseko hirugarren ihardunaldia jokatu denean gero eta garbiago ikus daiteke aurrera egingo duten taldeak nortzun izango diren. Dena dela, beti bezala egongo da azken orduko sorpresarik, ea ba nork ematen duen ezustekoa!



## Laburrak

■ **PARTIDU BAT ATZERATU**  
KK Jaurlaritzari eta Ke Oxtiasen arteko neurketa atzeratu egin zen KK Jaurlaritzari taldeko jokalariek oporretan zeudelako. Neurketa ostiralean jokatuko da arratsaldeko 7etan.

■ **PARTIDU INTERESGARRIAK**  
Zapatuko hiru neurketa gomendatuko ditugu: Goizeko 10etan Okoretegi eta Orlando piratas izango dira nor baino nor. Biek irabazi egin behar dute hurrengo faserako txartela ziurtatzeko. 12etan Irati STS eta Me la pela, lidergoa jokoan. 6etan Txeyenex eta Fosforos. Txeyenexek aukerak izan dezan irabazi egin behardio Fosforosi. Domekan beste hiru neurketa interesgarri. Goizeko 11etan Pepelusen

etsaia MSM Ingenieria Integral taldea izango da. Bieta-tik galtzen duenak agur esango dio hirugarren faseari. 12etan Naranja Mekanika eta AC Surcos. Neurketa honetan lidergoa egongo da jokoan eta berdinketa biezat ondo. Ordu batean Betraye eta Bedarreta taberna lehian. Talde biek behar dituzte puntuak, garai-pena hain zuzen ere.

■ **EPAILE BERRIAK**  
Antolakuntzaz gain sei epaile arduratzen dira aurrean Zaldibarko partiduak epaitzen: Candi, Zurbano, Aizkora, Unai Haritz eta Ramon. Aurreneko bostak esperientzia dute aurreko urteetatik. Ramon berriz, berria da, hala ere gaur arte maila bikaina erakutsi duela esan behar.

## Zaldibarren falta diren ihardunaldiak

Lau neurketa falta dira bigarren fasea bukatzeko. Talde gehienentzat ihardunaldi erabakiorrak izango dira hurrengo faserako txartela eskuratzeko, beraz, partidu horietan

talde bakoitzak izango duen aurkaria ezagutzeko aukera izango duzue ondorengo taulan. Hurrengo faserako sailkatzeko bederatzi puntu behar dira.

### 5. IHARDUNALDIA Apirilak 19-20

#### A taldea

Sortu informatika - Adelaida Aldibi  
Pepelus - Fosforos  
Txeyenex - MSM Ingenieria Integral  
Abinagraus - Aurrera Bolie

#### B taldea

Naranja Mekanika - Totem  
Insert Coin - Orlando Piratas  
Okoretegi - Arrogoi Taberna  
Koka Juniors - Ac Surcos

#### D taldea

Irati STS - Onaniereng  
Los Innombrables - Sokoakoak  
Lorategi - Diego antonio  
Galartza Kont - Me la pela

#### E taldea

Betrayer - Jotakabau  
Ojo Avisore - Ke Oxtias  
Cerveceria Leintz - Nuevo taberna  
KK Jaurlaritzari - Bedarreta Taberna

### 6 IHARDUNALDIA Apirilak 26-27

#### A taldea

Sortu Informaika - Pepelus  
Adelaida Aldibi - Fosforos  
Txeyenex - Abinagraus  
Aurrera Bolie - MSM Ing. Integral

#### B taldea

Naranja Mekanika - Insert Coin  
Totem - Orlando Piratas  
Okoretegi - Koka Junior  
Ac Surcos - Arrogoi Taberna

#### D taldea

Irati STS - Los Innombrables  
Onaniereng - Sokoakoak  
Lorategi - Galartza Kont  
Me la pela - Diego Antonio

#### E taldea

Betrayer - Ojo Avisore  
Jotakabau - Ke Oxtias  
Cerveceria Leintz - KK Jaurlaritzari  
Bedarreta Taberna - Arrogoi Taberna

### 7. IHARDUNALDIA Maiatzak 3 eta 4

#### A taldea

Sortu informatika - Txeyenex  
MSM Ingenieria Integral - Adelaida Aldibi  
Pepelus - Abinagraus  
Aurrera Bolie - Fosforos

#### B taldea

Naranja Mekanika - Okoretegi  
Arrogoi taberna - Totem  
Insert Coin - Koka Juniors  
AC Surcos - Orlando Piratas

#### D taldea

Irati STS - Lorategi  
Diego Antonio - Onaniereng  
Los Innombrables - Galartza Kont  
Me la pela - Sokoakoak

#### E taldea

Betrayer - Cerveceria Leintz  
Nuevo taberna - Jotakabau  
Ojo Avisore - KK jaurlaritzari  
Bedarreta Taberna - Ke Oxtias



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Aurrera Bolie	3	3	0	0	19	7	6
Fosforos	3	2	1	0	15	5	5
Sortu Informatika	3	2	0	1	14	14	4
Adelida Aldibi	3	1	1	1	9	13	3
MSM Ing. Int.	3	1	1	1	11	16	3
Txeyenex	3	1	0	2	15	12	2
Pepelus	3	0	1	2	3	14	1
Abinagraus	3	0	0	3	8	13	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC Surcos	3	3	0	0	20	8	6
Naranja Mekanika	3	3	0	0	17	9	6
Insert Coin	3	2	0	1	11	12	4
Orlando Piratas	3	1	1	1	15	9	3
Koka Juniors	3	1	1	1	10	10	3
Okoretegi	3	1	0	2	12	11	2
Totem	3	0	0	3	5	17	0
Arrogoi Taberna	3	0	0	3	6	2	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Me la Pela	3	3	0	0	18	2	6
Irati STS	3	3	0	0	25	6	6
Lorategi	3	2	0	1	16	14	4
Diego antonio	3	1	1	1	6	15	3
Galartza Kont	3	1	0	2	8	9	2
Onarieneg	3	1	0	2	10	17	2
Sokoakoak	3	0	1	2	11	20	1
Los Innombrables	3	0	0	3	9	20	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Cerveceria Leintz	3	3	0	0	20	6	6
Nuevo taberna	3	2	1	0	15	10	5
KK Jaurlaritzari	2	1	1	0	13	9	3
Bedarreta Taberna	3	1	1	1	7	8	3
Betrayer	3	1	0	2	8	12	2
Ojo avisore	3	0	2	1	11	21	2
Jotakabau	3	0	1	2	11	14	1
Ke Oxtias	2	0	0	2	6	11	0



Zigorrola, 1 • 1. pabiloia  
Tel.: 71 20 02

## Emaitzak

### A taldea

sortu Inf. 9 - MSM Ing. Int. 2  
Pepelus 0 - Aurrera Bolie 6  
Txeyencx 4 - Adelaida Aldibi 5  
Abinagraus 1 - Fosforos 3

### B taldea

Naranja Mak. 9 - Arrogoi Tab. 3  
Insert Coin 5 - AC Surcos 9  
Okoretegi 8 - Totem 3  
Koka Juniors 4 - Orlando Pir.4

### D taldea

Irati STS 12 - Diego antonio 1  
Los Innombrables 0 - Me la pela 4  
Lorategi 8 - Onarieneg 0  
Galartza Kont. 8 - Sokoakoak 3

### E taldea

Betrayer 1 - Nuevo taberna 2  
Ojo Avisore 3 - Bedarreta Tab. 3  
Cerveceria Leintz 5 - Jotakabau 3

## Hurrengo partiduak

### 4. ihardunaldia

Apirilak 12, larunbata

#### Zaldibar

8.50 Jotakabau - KK Jaurlaritzari  
10.00 Okoretegi - Orlando Piratas  
11.00 Onarieneg - Galartza Kontenedoreak  
12.00 Irati STS - Me la pela  
13.00 Isert Coin - Arrogoi taberna  
14.00 Los Innombrables - Bedarreta Tab.  
15.00 Totem - Koka Juniors  
16.00 Cerveceria Leintz - Ke Oxtias  
17.00 Adelaida Aldibi - Abinagraus  
18.00 Txeyenex - Fosforos  
19.00 Sortu Informatika - Aurera Bolie

Apirilak 13, Igandea

#### Zaldibar

8.50 Ojo Avisore - Nuevo taberna  
10.00 Lorategi - Sokoakoak  
11.00 Pepelus - MSM Ingenieria Integral  
12.00 Naranja Mekanika - AC Surcos  
13.00 Betrayer - Bedarreta taberna



# AMI OINETAKOAK

oinetakoan autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

# Adecco

ADECCO Aldi Baterako Lan Enpresa  
Adm. Bai. 79/0002/94 Zenb.  
Enplegu Zuzendaritza Orokorra

**Aldi Baterako Lanean Munduko  
liderra den Nazioarteko Enpresal  
langileak behar ditu Arrasateko  
ordezkaritzarako:**

URDAI SALTZAILEAK/LEHEN MAILAKO HARAKIN-OFIZIALAK  
ARRAIN SALTZAILEAK  
FRUTA SALTZAILEAK  
KUTXAZAINAK ETA BIRJARTZAILEAK

Interesa dutenek deitu 79 57 00 telefonora  
edo, bestela, curriculuma bidali  
helbide honetara:  
143 postakutxa, 20.500 ARRASATE







Kirolaz gozatzeko aukera izan zuten ikasleek.

## Kirol topaketak La Merced ikastetxean

La Merced ikastetxeak IV topaketak antolatu zituen apirilaren 5ean. Eibar, Gasteiz, Leioa eta Arrasateko La Merced ikastetxeetatik 350 ikasle inguru elkartu ziren. Neska mutil gazteek era guztietako kirolak egiteko aukera izan zuten baina arrakastatsuenak futbola izan zen. Futbolaz gain, eskubaloia, saskibaloia, badmintongean eta atletismo-

an jokatu zuten. Goiz osoa kirola egiten igaro ondoren, bazkaltzeko tarte bat egin eta arratsaldean finalak jokatu ziren. Kirol ekintzari bukaera gimnasia erritmikako erakustaldi batekin eman zitzaion. Topaketetan parte hartutako ikastetxe bakoitzak plaka bana jaso zuen eta ikasleek kirol material ugari, Arrasateko kirol dendeak oparitu.

## Squash txapelketako irabazleak

Musakolako kiroldegian egin zen squash txapelketako irabazlea Juan Antonio Varilla Ake squash taldekoa izan zen Asier Murguzur oñatiarrari zailtasun handiz irabazi eta gero. Txapelketan Deba Garaiko 18 jokalarik hartu zuten parte eta maila handia eta ona egon zela aipatu dute antolatzaileek.

Argazkian finalera heldu ziren bi protagonistak agertzen dira. Partidu lehiatsua izan zen finala.



## FUTBOLA Atxabalpen emakumeak eta gizonak



Mondrako emakume taldeak Bizkarrerren kontra neurtuko ditu indarrak denboraldiko azken aurreko partiduan. Juanina Garaik zuzentzen duen taldeak dagoeneko kategoriari eusteko beharrezkoak diren puntuak ditu. Beraz azken bi partidua lasaia izango dira Arrasateko taldearentzat. Domekako partidua eguerdiko 12etan jokatuko da Atxabalpen. Azken norgehiagokan Iruñeako San Juan taldea izango du arerio Mondra taldeak.

Preferente mailakoek Mutriku bigarren sailkatuaren bisita jasoko dute domekan arratsaldeko 5etan Atxabalpen. Une honetan Jesus Mari Barrutiabengoaren taldea sailkapeneko 6. tokian dago 49 punturekin. 30 neurketatik 14 irabazi dituzte, 7 berdindu eta 9 galdu. Mutrikuren kontrako partidua ez da samurra izango. Izan ere kostaldeko taldea sailkapeneko 2. tokian dago 62 punturekin eta hirugarren maila du helburu.


## SASKIBALOIA Lehen faseari agur



Urbina Maltzaga saskibaloia taldeak lehen faseko azken partidua jokatuko du domekan. Mataron Meroil taldea izango du aurrez aurre Arrasateko arratsaldeko 7etan. 13. tokia eskuratzeko irabazi egin behar dute neurketa. Postu hori lortuz gero, jeitsierako play offean Urbina Maltzagak kantxa faktorea bere alde

izango luke. Dena dela, aurrean izango den taldeak ez dizkio gauzak samur jarriko German Mongeren taldeari. Meroil 3. sailkatua da eta 19 partidua irabazi eta 6 galdu ondoren, 44 puntu ditu. Lehen fasea bukatuta jeitsierako fasea jokatu behar. EBA maila ez galtzeko Urbina Maltzaga ezingo da lokartu fase garrantzitsu horretan.

## RUGBYA Herensugeak Getxon



Herensugeak beterrano taldea eta Getxo elkarren kontra arituko dira zapatuan Getxon. Talde biek lagun arteko partidua jokatuko dute arratsaldeko 4etatik aurrera. Bi helbururekin joango da Arrasateko taldea: ondo pasatu eta ahal bada irabazi.

## ATLETISMOA Apirilean proba ugari



Arrasate Atletiko taldeak emaitza onak lortu zituen Tolosako Berazubi kiroldegian. Apirilean berriz, egutegi zabala izango dute atletek. 12an Donostiako Anoetako pistetan kadete mailako Gipuzkoako lehen txapelketa egongo da lehen. 19an taldeen arteko Gipuzkoako txapelketa, Anoetan ere. Apirilaren 26an osteran, kadete mailako Gipuzkoako bigarren txapelketa jokatuko da Ordizian.

Domekarako VII. Herri Krosa Antigua-Donostia antolatu du Euskaldunon Egunkariak. Lasterketa goizko 11etan hasiko da.






# egizabal

**Oinetakoak  
eta poltsak**

Betikoak!  
Lau belaunaldiren  
bermea dugu.



Ferrerias, 9 • ARRASATE  
79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA  
76 12 28

Apirilak 18  
Gaueko 9etan

**magna**  
Azeti kalea, 7 • ARRASATE

**SARRERAK: Lorategi tabernan**

**Bueltan gatoz.**

**ILEAPAINGINTZA DESFILEA**

**MAGNA diskotekan**

**Modelo profesionalak!**

**Tele 5-ko modeloaz show berezia!**

**Zure sarrera doan lortzeko ikus  
ezazu ale honetako 30. orrialdea!!**



**ILEAPAINDEGIA**

Corbea, 2 behea • ARETXABALETA • Tel.: 77 09 44



**JULIAN GOROSPE** (TXIRRINDULARI OHIA)

# “Indurainen agurraz beste

**M**añarian jaio zen Julian Gorospe, orain 37 urte. Txikitatik txirrindulari lasterketetan hasi, afizionatuetan Baqué taldean egon eta laister egin zuen profesional mailarako jauzia. Profesionaletan Reynolds eta Banesto taldeetan ibili zen. Garaipen handiak lortu zituen, tartean gaur bertan bukatzen den Euskadiko Itzulia. Lasterketak utzi zituen, baina txirrindularitza ez, orain afizionatu mailako talde bat zuzentzen dabil eta. Aste Santua baino lehen Eskola Politeknikoan egon zen, elitako kirolaren gaineko hitzaldi bat eskainiz.

**- Konpetizioa faltan botatzen duzu?**

- Ez, faltan ez, txirrindulari gazteekin lanean nabil eta. Sasoian nengoen bitartean gustora ibili nintzen, baina gero adinagatik utzi nuen, 34 urterekin. Adin horrekin utziaz gero ez da faltan botatzen.

Edozein modutan afizioa barruan daramat eta horregatik jarraitzen dut mundu honetan.

**- Gustora zuzendari moduan?**

- Bai oso gustora, jende ona daukat, talde ona

eta norberak dakiena beste batzueri irakastea beti da polita.

**- Eta zuzendari baten lana nolakoa izaten da?**

- Alde ugari daude: bata lasterketen aurretik egiten dena, entrenamenduak bideratzekoa; bestea, lasterketetan egiten dena, taktika bat edo bestea eraman; hirugarren bat askoz orokorragoa izango litzateke, nolabait esateko jendea fintzea. Jende gazteak gogo handia izaten du



**“Jende gazteak gogo handia izaten du normalean, baina baita akatsak ere, eta akats horrek apurka apurka zuzendu beharra dago, ahal denean behintzat”**



# ek aukera gehiago dute”

normalean, baina baita akatsak ere, eta akats horrek apurka apurka zuzendu beharra dago, ahal denean behintzat.

Zorionez jende oso ona egokitu zait parean eta horregatik ez daukat zailtasunik, baina beti dago aholkatu beharra.

**- Zuretako hori zer da? noizbait profesional mailako zuzendari izateko esperientzia?**

- Momentuz buruan ez daukat horrelakorik, baina aukera ailegatzen bazait aprobetxatuko dut seguruen. Momentuz hemen hasi naiz, horrelakorik ez nuen espero, baina begira, hementxe nago eta ikusiko dugu aurrerantzean zer gertatzen den.

**- Euskadiko Itzuliaren jarraipenik egingo duzu?**

- Egia esan asko gustatuko litzaidake. ETBren aldetik jaso nuen esatari lana betetzeko

eskakizuna, baina ezin dut Granadara noialako taldearekin hango itzulian parte hartzera.

**- Telebista aipatu duzu. Zela ikusten duzue zure burua esatari lanetan?**

- Ez naiz aditua, baina behintzat ezagutzen dut gaia. Gainera Euskal Herrian egiten diren lasterketak ondo ezagutzen ditut, eta alde horretatik badut zer esanik.

**- Elkarrizketa argitaratzen denerako aurtengo Itzulia erabakita egon daiteke. Baina, nolakoa izan daiteke?**

- Ez da oso gogorra, baina horregatik zabalagoa izango dela esango nuke. Jende askok izango du aukeraren bat. Arrasaten hasten den erlojuaren aurkako azken eguneko proba oso luzea da, badauka gogortasuna azken bi kilometroetan aldapa handiak daudelako, eta gainera lasterketa garrantzitsua eta ospetsua denez mugitua izango da.

**- Pronostikorik?**

- ONCEkoak ondo ikusten ditut, Casagrande ere ondo ibiltzen da honelako itzuli txikietan, Ulrich ere gogoarekin

dator... eta beste asko ere bai. Euskadiko Itzuliak garrantzi handia du, hona etortzen direnek badakite hori eta gainera sasoi ona da txirrindulari asko-  
rendako.

**- Indurainek agur esan eta gero, zerbait aldatu da txirrindularitzan?**

- Hark izan duen boteretik hartzeko moduko inor ez dut ikusten momentuan, urte askotan inor ez delako berari irabazteko gai izan. Horrelakoak gainera ez dira irtetzen egun batetik bestera. Indurainen agurrarekin aldatu baino zabaldu egin da txirrindularitza, haren itzalpean egon diren asko eta asko hortzak erakusten hasi direlako. Ikusten da beste batzuk ere hor daudela, ez lehen bezala bakar bat.

Dena den, Olanorekin euskaldunok garrantzia handia daukagu. Oso ona dela erakusten dabil, baina ikusteko dago noraino ailegatu daitekeen. ■

**“Olanorekin euskaldunok garrantzia handia daukagu. Oso ona dela erakusten dabil, baina oraindik ikusteko dago noraino ailegatu daitekeen”**

## TANDEM

# BIZIKLETAK

## Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliarekin!

Zarugalde, 8 • ARRASATE • Tel.: 79 56 38







## Gaztemaniak! en eskutik Golden Apple Quartet eta Pablo Moreno kitarrajolea apirilean

Apirilaren 17an eta 25ean musika emanaldi bereziak izango dira entzungai Monterronen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Gaztemaniak!* kultur egitarauaren barruan, Golden Apple Quartet ahots laukotea eta Pablo Moreno kitarrajolea etorriko dira Arrasatera.

Aipatutako artistek musika saio bereziak eskainiko dituzte, *Demos* izenburupean biltzen diren saioak. Berezi-tasuna hitzen erabilpen ezan datza, izan ere, musikariek instrumentuak eta ahotsa baino ez dute erabiliko musika interpretatzeko. Kultur egitarau honi *Demos* izena jarri izanak badu arrazoi bat, artista bakoitzak bere abileziaren demostrazioa egiten du eta. Luis Camino perkusio joleak adibidez, marakak, kongak, bongoak, berimbau-a, güira eta beste instrumentu batzuk erabili ditu gaur arratsaldean eskeini duen emanaldian. Musikari hau autodidakta da eta urte askotan *21 Japonese*s taldean ibili da. Gaur egun



Demos-en artista bakoitzak bere abileziaren demostrazioa egiten du.

beste artista batzueri laguntzen die profesionalki. Luis Camino Javi Area bateriajolearekin batera aritu da.

Datorren ostegunean berriz, apirilaren 17an, Golden Apple Quartet ahots laukote ezagunaren emanaldia ikusi eta entzun ahal izango da. Laukote

honek, musika instrumentuen laguntzarik gabe, doinu desberdinak interpretatzen ditu ahotsekin bakarrik.

Demos egitarauari amaiera emateko, Pablo Moreno kitarrajolea izango da Monterronen entzungai apirilaren azken ostiralean. Pablo More-

nok kitarra elektrikoa joko du, Stratokasterra, eta MIDI sistema erabiliz, indar handiko erakustaldia eskeiniko du.

Musika erakustaldiak arratsaldeko 7etan izango dira Monterronen.

### GAZTEMANIAKARRASATEN

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru urte daramatza *Gaztemaniak!* kultur egitaraua antolatzen eta Udalaren bitartez hainbat izan dira herrira ekarri diren ekintzak. Esaterako, Nación Reixa, Bill Thomas eta Albert Plá musikariren emanaldiak *Gaztemaniak!* proiektuaren barruan kokatu ziren eta baita Beldurrezko Zine Maratoia ere.

Foru Aldundiak ekintza desberdinak antolatzen ditu urtean zehar eta Gipuzkoako udalerriei eskeintzen die. Oraingoan Arrasateko Udalak *Gaztemaniak!* en apirileko egitaraua hartu du eta horregatik izango dira hemen apirilaren 17an eta 25ean aipatutako musika eta doinu erakustaldiak.



## URONDO Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76



## ARANTZA JUARISTI, MARGOLARIA

## “Lagunak eta lankideak izaten dira nire koadroetako modeloak”

Bere etxeko pasabidean makina bat koadro dago pilatuta. Koadro bakoitzean pertsona bat dago marraztuta, pertsona anonimoak. Arantza Juaristik margotu ditu koadro horiek eta orain Harresi Aretoan ikus daitezke. 46 urteko emakume honek marra lodi eta kolore biziekin isladatzen ditu bere modelook.

## — Nor izan duzu pintura irakasle?

— Serio margotzen hasi nintzenen, pintura ikastaroak antolatzen zituzten lekuetara joaten nintzen. Makatzenako lokal batean Agirre abizeneko bergarar batekin ibili nintzen eta ondoren Gasteizko irakasle batekin. Eskua hartu nionean, nire kontura hasi nintzen. *Artelekun* ere parte hartu dut bi ikastarotan.

## — Zer margotzen duzu?

— Pertsonak margotzea gustatzen zait gehien, erretratuak. Zaila da, modeloak aurkitu behar izaten ditut eta, baina hori da gehien gustatzen zaidana margotzea. Loreak ere margotzen ditut eta lehen baita paisaiak ere.

## — Zeintzuk izaten dira zure modelook?

— Laneko lagunak, kalekoak... Eurengana joan eta ea niretako posatzea inporta zaien galdetzen diet. Normalean ez dute erreparorik izaten, baina egia da euredako apur bat nekeza dela posatzen egotea.

## — Zergatik pertsonak margotze hori? Ondoren koadroarekin identifikatuta ikusten dira?

— Batzuk bai, baina nire helburua ez da pertsonaren fisikoa ahalik eta ondoen margotzea, bere izaera edo espresioa baizik. Modeloa aukeratzen



dudanean zerbait berezia ikusi edo somatu diodalako aukeratzen dut

## — Zenbat denbora behar izaten duzu erretrato bat egiteko?

— Bi saiotan egiten dut, egun bakoitzean saio bat eta modelo bi egunetan etortzen da. Koadroaren fondoa berriz, ondoren egiten dut.

## — Ze pintura estilo duzula esango zenuke?

— Nire ustez figuratiboa da.

## — Zenbat margo jarriko dituzu Harresi Aretoan?

— Hogeitamaren bat. Erretratuak eta paisaiak izango dira. Horiez gain Gasteizko Arte eta Ofizio eskolan bi modelo biluziekin egin ditudan koadro batzuk ere jarriko ditut.

## — Erakusketa dela eta, urduri zaude?

— Onartu egin behar dut, bai. Nire bigarren erakusketa da eta esaten dutenez, bigarrenarekin lehenengoarekin baino urduriago egoten da.

## aste gazte

## ■ LANA

• Arrasateko Iturbide Egoitzarako sukaldari lanpostua deitu du Udalak. Titulazioa eskola graduatua edo LH1 eta elikagai manipulazailer karneta. Epea apirilak 22.

## ■ DIPUTAZIOKO UDALEKU ETA OPORRALDIAK

• 7/13 urte bitarteko umei zuzendutako udalekuetan parte hartzeko aurreinskripzio epea apirilak 10-23.

• 14/17 urte bitartekoentzat oporraldi egitarau ezberdinak eta ingeles udalekuak. Aurreinskripzio epea apirilak 24-maiatzak 7.

• 17/29 urte bitartekoei zuzendutako kirol abentura egitarauak. Inskripzio epea: ekainak 2-27 bitartean.

## ■ AUZOLANDEGIAK

• 15/30 urte bitartekoei zuzenduta. Aurreinskripzio epea: apirilaren 14tik 24ra.

## ■ BEKAK

Kanpo merkataritzaren arloan adituak prestatzeko 25 beka deitu ditu Eusko Jaurlaritzak. Titulazioa: ekonomia, enpresa zuzenbidea, injineritza edo publizitatea. Epea: maiatzak 15.

## ■ GAZTE ETA KULTUR ELKARTEAK

• Aurtengo egitarauak burutzeko Udalak deitutako dirulaguntzak eskatzeko epea: apirilak 18

## ■ LEHIAKETAK

• Eibareko San Juanak iragartzeko kartel lehiaketa. Epea: maiatzak 16.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

**Gaur hasi eta apirilaren 27ra arte ikusi ahal izango dira Juaristiren margoak Harresin.**



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

- Eguzki dorrean 80 m<sup>2</sup>ko etxea eta 20 m<sup>2</sup>ko garajea salgai. Oso eguzkitsua da eta erdi jantzita dago. Tel.: 79 23 67.

- Gesalibar auzoan baserri berria salgai. Dei egin gauze edo arratsaldez 79 97 35 telefonora.

- Maitena kalean duplexa salgai. Tel.: 79 61 09.

- Hiru solairuko etxe zaharra salgai. Oñatiko alde zaharrean kokatuta eta 107 m<sup>2</sup>koa. Prezio interesgarria. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera deitu.

- Erdialdean dagoen etxea salgai. 4 logela, 2 komun, saloi eder bat eta garaje itxia. Tel.: 79 42 13.

### 2. Erosi

- Deba Garaian 60 m<sup>2</sup>ko apartamentua erosiko nuke. Dei egin gauze. Tel.: 79 23 60.

### 3. Errentan emateko

- Apartamentua alokatzen da Torre Viejan, hileka edo 15 eguneka. Playa del Curaren ondoan dago. Tel.: 79 32 54.

- Txaleta alokatzen da Salobreñasen (Granada). Hondartza ondoan dago. Tel.: 79 49 98.

- Playa de San Juanen (Alikante) pisua alokatzen da. Astebete, hamabost egun eta hilebeteka. Tel.: 79 49 98.

- Pisua alokatzen da Iturriotz kalean. Tel.: 79 18 50.

### 4. Errentan hartzeko

- Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 79 11 20.

- Alokatzeko pisu bila nabil Arrasaten. Tel.: 79 77 32 / 79 97 55.

### 5. Etxe konpartituak

- Logelak alokatzen dira erdialdean dagoen etxe batean. Tel.: 79 87 59. Tere.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

- Kontzeziñon garajea saltzen da. Tel.: 79 55 20.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Roneoko etxeetan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

### 9. Errentan emateko

- Garajea alokatzen da San Andre-sen. 65 m<sup>2</sup>. Tel.: 79 13 52.

- Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

## LOKALAK

### 12. Saldu

- Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

- Ferreríasen 200m<sup>2</sup>ko lokala salgai. Gaueko 9etatik aurrera. Tel.: 79 77 13.

- Musakolako kiroldegiaren ondoan lokal komertziala salgai. 76 m<sup>2</sup>. 8.300.000 pta. Negoziaigarriak. Tel.: 79 59 75.

### 14. Errentan emateko

- Ura eta argi indarra duen lokala alokatzen da. Tel.: 79 76 95.

- Lokal komertziala eskuz aldatu edo alokatzen da, beheko eta lehenengo solairua. Tel.: 79 18 00 / 77 08 97.

### 15. Errentan hartzeko

- Lokala alokatuko genuke lagun artean erabiltzeko. Tel.: 79 35 50.

### 16. Bestelakoak

- Erdiko kaleko bi solairuko lokal komertziala traspasatu egiten da. Tel.: 78 18 00.

## LANA

### 17. Eskaintzak

- Arratsaldez umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu nago. Tel.: 79 54 06. Maitane.

- Arratsaldez etxeko lanak egin edo pertsonak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

- Neska euskaldunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 98 96.

- Neska gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 25 52.

- Esperientziadun neska kamarero lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 95 92. Rakel. Gauetan.

- Andra euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

- Esperientziadun neska gertu, dena, atarte edo tabernak garbitzeko. Tel.: 79 64 46.

- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 42 03. Maite.

- Esperientzia eta arduradun emakumea pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tel.: 79 05 90.

- Arratsaldez lan egingo nuke umeak zaintzen edo etxeko lanetan. Tabernetan lan egiteko ere gertu nago. Tel.: 79 77 79.

- Neska gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 94 62.

- Klinika laguntzailea eta geriatrion titulodun andra pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.

- Emakume gaztea gertu etxea, atarte edo bulegoan garbitzeko. Tel.: 79 59 75. Agus.

### 18. Eskaerak

- Hiru edo lau hilebeterako elektrizita bat behar dut tentsio bajuko berifikazioak egiteko. Tel.: 937 41 89 71. Santi.

- Pertsona bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 03 26. Gauze deitu.

- Olarte kalean dagoen BK dendan dependientea behar dugu. 25 urte tik gorakoa. Euskalduna. Tel.: 79 79 06.

- Arrasateko ileapaindegri batean estezitza behar da. Tel.: 77 07 66.

- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 22 92. Dei egin 2.30etatik 7etara.

- Sukaldaria behar da. Tel.: 79 68 57.

- Neska behar da tabernan baten lan egiteko. Deitu 3etatik 5etara. Tel.: 79 00 34.

### 19. Bestelakoak

- Gauetan eta ezkontzetan jotzen duen musika taldeak gitarrajolea behar du. Tel.: 79 96 56. Iban.

- Gazte talde batek ezkontzatan abestuko luke. Oso merke. Tel.: 79 79 85.



**IRAKASKUNTZA**

**20. Eskaintzak**

• Titulodun irakaslea LH eta DHBH-ko klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 94 04. Marijo.

• EGB, REM, eta ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Tel.: 79 55 11.

• Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako klase partikularrak ematen dira euskaraz edo erdaraz. Tel.: 79 40 57 / 79 98 68.

• Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Tel.: 77 02 74. Ana.

• Alemaneko klase partikularrak eman edo itzulpenak egingo nituzke. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 13etatik aurrera.

**21. Eskaerak**

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisisa, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

• Internet-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Arratsaldez edo

gauez. Tel.: 79 55 04.

• Zergatan aditua den laguna behar da eskolak emateko. Tel.: 79 32 54. Iñaki.

**MOTORRA**

**23. Saldu**

• Fiat Regata autoa salgai. Egoera onean dago. Prezioa: 350.000 pta. Tel.: 79 25 19.

• Suzuki RF-50 motorra salgai. Tel.: 79 62 50. Ander.

• Lada Niva kotxea salgai. Tel.: 79 66 52.

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

• Peugeot 205 TD salgai, SS-AM. ITVa 99ra arte pasatuta. Prezio interesgarria. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.

• Renault 11 TXE salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

• Vespa 200 motorra salgai. VI-I. Tel.: 76 08 51.

• Yamaha Virago 1.100 motorra salgai. SS-AJ. 1990 urtekoa. Extra asko ditu eta egoera onean dago. 700.000 pta. Tel.: 79 61 89.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

• Cort Luxe gitarra elektrikoa gehi Zoom 900-S efektu prozesatzailea: Biak, 100.000 pta. Suelto erostekotan: 55.000 pta. bakoitzak. Tel.: 79 16 36. Txus edo Toño.

• Boss Me-5 peldala 45.000 pta. Tel.: 79 95 83. Josu.

• Peavey Combo baxu anplifikatzailea salgai. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 16 36. Toño.

• Portaeski eta kotxe gainean jartzeko parrila salgai. Tel.: 79 00 99.

• Ingalaterrara bidaiia 170.000 pta.tan. Amaia. Tel.: 79 53 58.

• Cibro markako berogailua eta Fagor markako ur berogailuak salgai. Tel.: 79 81 25. Gauez.

• Soprani markako soinua daukat saltzeko. Tel.: 79 82 06.

• Butaka relax salgai. Tel: 79 22 92.

• Zapatak konpontzeko aintzinako makina salgai. 100.000 pta. Tel.: 79 81 70 / 71 50 72.

• Aluminiozko bizikleta salgai. XT piezak ditu. 50.000 pta. Tel.: 79 70 96. Felix.

• 4/5 lagunendako kanpinerako Sango markako karro-denda salgai. Tel.: 79 15 96.

• Harategiko 3 gondola, kuttxa erregistraztailea, markatzeko 2 makina, pisu elektronikoa, okindegiko mostreadorea eta dendetarko tresna gehiago salgai. Merke-merkeak. Tel.: 79 59 75.

• Igloo markako denda salgai. 5 lagunendako. Egoera onean dago. 8.000 pta. Tel.: 71 52 38. Maider.


**27. Erosi**

• Ura purifikatzeko Biozon (Fagor) aparailua etxean bazterturik baldin badaukazu, merke erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 17 88. Karmen.

• Bigarren eskuko argazkiak proiektatzeko tresna erostea gustatuko litzaidake. Tel.: 79 55 88.

**NISSAN kamioien gama.**

**ECO-T.100**



**Trade**




**ALDIBI AUTOAK, S.A.**  
ZIGORROLA KALEA, 1 - TEL. 943 / 71 20 02 - 20.500 ARRASATE





# ■ Arantxa Lejarraga

## UMEZAINZA HAUR ESKOLAKO ZUZENDARIA



**1** 965eko urtarrilaren 29an jaio zen gaur egun Umezaintza Haur Eskolako zuzendaria dena. La Merced eta San Viatorren ikasi zuen. Ondoren Euskal Herriko Unibertsitatean Pedagogia ikasi zuen. Ezkonduta dago eta bi alaba ditu.

1. Zein da zure horoskopoa? Akuario.
2. Sinestuna zara? Bai.
3. Animalia bihurtzekotan? Uso.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Erraz egiten dut negar/Pazientzia.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Piropoek.
6. Amets bat? Baserri batean bititzea.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Gosea.
8. Gertakizun historiko bat? Bigarren gerrate mundiala.
9. Nor miresten duzu? Teresa de Calcuta.
10. Zeri diozu beldurra? Etxean bakarrik egoteari.
11. Zertaz damutzen zara? Kirola ez egiteaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Bigarren alaba izan nuenean.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Haurrendako parke gehiago.
14. Eta zuri? Denbora.
15. Lanbidez aldatzekotan? Erizain.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Zaldibar.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Erretzeari utzi.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Egunkaria eta *Diario Vasco*.
19. Gustoko janari bat? Kokotxak.
20. Liburu on bat? *El hombre que susurraba al oído de los caballos* asko gustatu zitzaidan.
21. Filmerik onena/txarrena? *La lista de Schindler/Striptease*.
22. Musika talderik onena/txarrena? Gozategi/Ez dakit.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? *Informe Semanal/Lo que necesitas es amor*.
24. Egin dizuten oparirik politena? Azkena, poltsa bat.
25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Irakurtzen.
26. Oporretarako toki bat? Ezkarai.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Plan-txa.
28. Gomendio bat? Kirola egin.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Familiarengatik.
30. 200 milioi irabaziz gero? Lasaiago biziko nintzateke.



Ikus 23. orrialdea.

**Modelo profesionalak!**



**ILEAPAINDEGIA**

Gorbea, 2 behea • ARETXABALETA • Tel.: 77 09 44

**Show ikusgarria!**

Bidal ezazu txartel hau Arrasate Komunikabideak-eko (ARKO) buzoira eta ileapaindegintza desfilerako sarrera irabazi ahal izango duzu. Irabazleak hurrengo astezkenero, apirilak 16, **BERRIAK** saioan jakin araziko dira.

Izena \_\_\_\_\_

Tel. \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_



Martxoa-Apirila

# Ongietorria udaberriko bizitzari: lana gogotik egin behar gero uzta jaso ahal izateko

**S**ekula baino ederrago egon ohi da natura udaberrian. Neguko lozortatik atera eta bizia nabarmen nabarmen bazter guztietan: egunetik egunera berdeago zuhaitzak, kolore askotako tximeletak nonahi, txorien hegaldiak eta abestiak, landareen loratzea, abereak aske zoroetan, neguan betetako errekatxoak bizi bizi urez gainezka... Eta naturatik gertu edo naturan bertan zerbait badago, hori baserria da.

Negu gogorreko lasaitasunetik irtenda (nahiz eta aurtengoa epel epeletik joan den), gero uzta jaso behar bada lanean hasi behar baserrietan, aberastasunaren ezauzgarri den kukuak aspalditxo egin zuen bere kantua eta.



Artoa eraiten aspaldiko eran, astoaz lagunduta.

## LURREAN

Urteko sasoi honetan lur lanek dute protagonismoa baserrian. Patata sartzeko lurra landu egin behar izaten da, gero patata sartu, eta ondoren dator patata jorratu beharra. Oinarri oinarritzko gaia da patata baserriarentzat, bai etxeko beharretan erabiltzeko eta baita plaza edo azokara eraman eta saldu ahal izateko. Azken urteetan makina bat gorabehera izan da patataren inguruan, batez ere saltzera ateratzen dutenentzat. Prezio kontuak jakina, behea jota ibili da eta patataren prezioa. Dena den, oraindik estimatua da baserriarentzat; gainera, hemen oso modu onean etortzen dena.

Patatarendako lurra pres-

tatu behar den moduan, artoarendako lurra ere lantzen da martxoa-apirila bitarte honetan. Aspaldiko usadioak dioenez, martxoaren hilbehera egokiena da aipatutako lurraren presatuntzarako. Itxura denez, udaberri hasierako lehen hilbeherak, udaberriak berak bezala, badu izkutuko indar berezi bat, landareengan eragin nabarmena duena. Askoren ustez, landareei ezezik, gizakiei eta animaliei ere eragiten die martxoaren hilbeherak. Beharbada horregatik, hilbeheraren indarrari lagundu nahian bezala, lurrari berezkoa duen indarra nolabait gehitzen saiatzen da baserriar asko eta asko mineralak erabiliz irekitako lurretan eta zoloetan.

Patata eta arto lanak aipatu ditugu orain arteko lerroetan, baina ez dira horiek denboraldi honetan prestatzen diren gauza bakarrak: erremolatxa eraiten da, bainak edo lekak jartzen dira, letxuak sartu, tipulak transplantatu, babak sartu, porru landarak erein, hazitarako piperrak prestatu... Orain ez da hainbeste egiten, baina duela urte batzuk toma-tea birlandatu egiten zen urteko sasoi honetan, gero landareak saldu ahal izateko helburuarekin. Ikusten denez, bizitasuna ortu lanetan.

## GAZTAGINTZAN

Negu osoan baserriaren edo inguruko txabolaren baten babesean egon diren abereak,


jaio berriak nahiz nagusiagoak, oraintxe ateratzen dira zelaietara. Sarri sarri ikus daitezke, zaldi edo txahal txiki sortu berriak bizitzari ongiatorria eginez korrika zelaietan. Hauek pozik; baserriarrek eta batez ere artzaiak, berriz, dagoeneko mendira begira, artalde noiz hartu eta goiko larretara joateko zain. Batzuk honez gero, hasita egongo dira gaztagintzan. Lehen behintzat, otsaila inguruan hasten ziren gaztagintza lanak; orain, berriz, martxoa-apirila tartean hasi eta hortxe ibiltzen dira gazta eta gazta egin ekaina ingurura arte, ardiak antzutu artean. Horrek, baina, udako kontuak, orain egindako lanaren fruituak dasta daitezkenekoak.



## ■ Horoskopoa

- **Aries** Erlojuari begira ez duzu lana aurretako. Lasai hartu.
- **Taurus** Etxera heldu eta guztia gertu. Zu bai ondo bizi!
- **Gemini** Ahaleginak egiten dituzu baina ezin lortu.
- **Cancer** Ez hainbeste pentsatu. Korapilatu egingo zara.
- **Leo** Erantzun ona izango du zure operiak. Lasai.
- **Virgo** Presaka ez da ezer ongi egiten, ezta?
- **Libra** Garratzegia zarenez azukretan murgildu beharko zara.
- **Scorpio** Berri ederra emango dizute datozen egunetan
- **Sagitarius** Kontuz poltsikoarekin. Aspaldian oso zulatua duzu.
- **Capricorn** Amets txarrak ahaztu egin behar dira badaezpada ere.
- **Aquarius** Pertsona bakoitza mundu bat da, ez zenekien?
- **Piscis** Umorea falta zaizu nahiz eta istorio latzak bizi izan.

## ■ Gurutzegram



JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Lan munduan euskara bultzatzeko elkarte. 8. Zergati, arrazoi. 9. Egur eta abarrez eginiko sorta. 10. (Ald.) Sentimenak erne. 12. (Ald.) Kristoren ondorenen laburdura. 13. Emakume-zale. 16. Heze. 17. Zerbakiak zerrendan lehena. 18. Mexikoko edari alkoholduna. 20. Europan eta Afrikan bizi eta XVII. mendean desagertu zen ugaztuna. 21. Baratze.

**Bertikalak** 1. Pertsona batekin lehen harremana izan. 2. Bike. 3. Jantzi. 4. Ahaztu aditzaren infinitiboa. 5. Musika eskalako seigarren nota. 6. Ardura, arre. 7. Neke handia sortzen duena. 11. Salvador, pintore katalana. 14. (Ald.) Romuloren anaia bikia. 15. Zuhaitz-adarra mehea denean. 19. Ohartasunaren etenaldiz gorputzak atsedean hartzearen egintza.

Remo. 15. Abar. 19. Lo.  
**Bertikalak:** 1. Ezagutu. 2. U. 3. Soineko. 4. Ahaz. 5. La. 6. Axola. 7. Neketsu. 11. Dali. 14. (Ald.)  
**Horizontalak:** 1. Euskalan. 8. Ziol. 9. Haxe. 10. (Ald.) Ad. 12. (Ald.) K.O. 13. Gonzalez. 16. Umel. 17. Bar. 18. Tekila. 20. Uro. 21. Ortu.



LEIHO ISOLATZAILEAK



**Bezerekin zerbitzu zuzena**



**Kalitatezko muntaiak**

**Irtenbide aproposena!**





**(I+D) Ikerketa eta garapena**



**Fabrika Zentrala**

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia







## Alkatearekin Berbetan saioa datorren asteazkenean


Herrian dauden gai garrantzitsuenei pultsoa hartuko zaie asteazkenean gaueko 9etan ATBn. Xabier Zubizarreta alkatea Arrasate Telebistan izango da hainbat galderari erantzuteko. Azken egunotan gobernu taldean izan diren gorabeherak ere hizpide izango dira solasaldi horretan.

# Txirrindulari Itzuliaren amaiera ATBn gaur arratsaldean

Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia ostiralean Arrasaten amaitzen delako eta erlojuz kontrako froga herrian bertan izango delako, Arrasate Telebistak bere ekipa

osoa eramango du txirrindulari gunera. Elkarrizketa, erreportai eta bideo interesgarri osatutako saio berezia prestatuko du ATBk, ondoren arratsaldeko 8ak aldera emi-

titzeko. Badakizu, txirrindulari itzuliko azken etapako kontuak ezagutu eta herrian bizi den giroa ikusi nahi baduzu, ATBn izango duzu horretarako aukera.



## ■ ATBko asteko programazioa

11 Ostirala	14 Astelehena	15 Asteartea	16 Asteazkena	17 Osteguna	18 Ostirala
20.00 "Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia" Programa berezia	13.30 "Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia" (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Mondrasport	13.30 Mondrasport (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Lotsa Barik Alex Exkixu	13.30 Lotsa Barik (Errep.) 20/20.30 Berriak 21.00 Alkatearekin Berbetan	13.30 Alkatearekin Berbetan (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Kukaratxa Motel	13.30 Kukaratxa Motel 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Astebete

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiral  
5etatik 8etara.  
Tel.: 79 26 99



**IÑAKI IRAZOLARI ZORIONAK!**  
Ea gaztetan bezain irrifartsu hartzen dituzun 30 urte hauek!





**Z** argaldeko eskolako haurrak, 1930-31 ikasturtean, denak Luzio Portillo maisuaren inguruan.

Ekzerretik hasita, lehen ilaran: Iñaxio Ibarra "Kaxo", Inaxio Zubizarreta "Bilaflore", Felipe Zuazubizkar "Txosa", Felipe Zubizarreta "Bilaflore", Felipe Balanzategi "Rubio", Justo Etxebarria "Troko", Justo Etxebarria "Troko", Bixente Etxebarria "Troko", Luis Garcia España "Pancorbo", Luis Badiola, Eugenio Guridi "Munar", Luzio Portillo maisua, Julio Aranburuzabala

"Gomix" eta Balentin Zubizarreta "Bilaflore".

Bigarren ilaran: Elias Herrarte "Tabernakoa", Elias Herrarte "Kamiñero", Eugenio Ortueta, Juanito Guridi "Toitua", Juanito Moreno "Pintorea", Juanito Goronaeta, Josu Otadui "Errementari", Jose Mari Lasagabaster "Benthez", Paulo Etxebarria "Paulito", Paulo Rodriguez "Tirape-los", Juanito Vega, Juanito del Pozo, Juanito Arama "Nafarrena", gainean dagoena ezezaguna.

Hirugarren ilaran: Anbro시오 Orbegozo "Tolosa", Anbro시오 Mujika "Legarre", Ambrosio

Arama "Nafarrena", Markos Iza, Markos Lete, Markos Lete "Kamiñero txiki", Markos Lete "Txirtxilla", Markos Erguin "Tanke", Markos Moreno, Markos Herrero, Tomas Uribarren, eta Jesus Guzman "Pantxo".

Laugarren ilaran, jarrita daudenak: Paulo Zeziaga, Teotiko Rodriguez, Bittor Usabiaga, Bittor Usabiaga "Olegario", Bittor Herrarte "Tabernakoa", Bixente Balanzategi "Txikomoreno", Anastasio Berriotxo "Arri-xan", Aristides Rodriguez, Faustino Barrena, Josemari Etxebarria "Arkautz" eta Gaspar Etxebarria.

Urtea: 1930-31

Argazkia: Josu Otadui.

Informazioa: Josu Otadui.

*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo handiko erropa**  
 Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 79 81 82

**PEUGEOT**  
 Salmenta eta zerbitzua

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
 Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**Lore**  
 Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
 Tel.: 79 52 50





# PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- SOLARIUMA DUTXAREKIN (11 SESIO 8.000 pta.)


## AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

SESIOA: 3.300 pta.

11 sesioko tratamenduagatik sesio bat eta manikura doan!

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan  
☎: 79 52 17 ARRASATE



## VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ▪ Tel.: 79 78 10 ▪ ARRASATE  
Ibargarai, 24 ▪ Tel.: 76 12 21 ▪ BERGARA

*Zure ongizatea  
babesteko gaude*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**



SALDU OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.



# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

**LOGELETAN** espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.  
Batetik, kalitate eta diseinurik  
handieneko logelak, garantia osoarekin.  
Bestetik, logela merkeen artean,  
merkeenak.

**BENETAN  
HARRIGARRIA!**

**LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!**

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE • Tel./Faxa: 79 41 82

# ARKAZ

## sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaian  
Betiko muntaiak

**FAGOR** 



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxa: 77 04 55